

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldeztu aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMENA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ez da ebaluatuko. ■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. ■ Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. ■ Denbora: 4 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderei erantzuteko. ■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. ■ 15 puntu. <p>2. ariketa: Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. ■ Helburua iritzia trukatzea, argumentatzea, eta eztabaidatzea da. ■ Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko. ■ 15 puntu. 	<p>35-40 min.</p> <p>(15 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

3. HE

(A fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
 - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

BANKUAREKIKO KONTRATUA BETE EZEAN, DESJABETZEA?

2008tik, krisia hasi zenetik, 2012ko ekaina arte, Hego Euskal Herrian 10.997 etxegabetze izan dira, batez beste egunean 17. Bere garaian bankuek oso pozik emandako kredituei ezin aurre eginik daude familia ugari. Zorra ordaindu nahi dute eta moratoria eskatzen dute, edo sikiera kreditua kitatu ahal izatea etxebizitza emanda. Eta bankuak izaten ari diren tratu bera nahi dute. Finantza erakunde askok hondoa jo eta ateak itxi beharko lituzkete, baina Estatuak ez die erortzen utzi eta milaka milioi euro eman dizkie, zergadunen dirua, alegia.

ARREGI, Juan Mari
www.argia.com 2012ko azaroaren 4a
Egokitua



Larrialdiari erantzuteko elkartasuna bide eraginkorra izaten ari da. Zeregin horretan *STOP Deshaucios* ekimena adin eta joera ezberdinen topaleku bilakatu da. Denek ere bere ahalegintxoarekin gizarte mailako arazo larri horri aurre egin nahi diote.

Kideen artean gazte jendea dago, eta baita jubilatuak ere. Bulego lanak eginez, abokatu lanak, komunikazioari dagozkionak... Desjabetzeen aurka, sektore ezberdinetako jendea biltzen ari da, bakoitza bere mailan eta neurrian laguntzeko prest.

www.aiurri.com
2012ko azaroaren 29a. Egokitua



- Zer azpimarratuko zenuke Arregiren hitzetatik?
- Askok gerrikoa estutu eta sakrifizio handiak egin behar izan ditu hipotekaren zorra kitatzeko. Zure ustez, bidezkoa al da, orain, ordaindu ez dutenei baldintzak erraztea? Arrazoitu.
- www.aiurri.com atariko testuan aipatzen den elkartasun edo laguntza horretaz zer iritzi duzu? Beste laguntza motaren bat beharko ote luke etxea galtzear dagoenak? Zein?
- Egoera larrietan pizten da gizakiaren alderdi solidarioena. Zergatik izan litekeela uste duzu?

3. HE

(B fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
 - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

ELIKAGAIEN IBILBIDEA ETA HELMUGA

89 milioi tona janari botatzen ditugu europarrok zaborretara urtean, hau da, gutako bakoitzak 179 kilo (kilo erdia egunero). Horietatik %42 etxeetatik iristen dira zabortegietara, %39 fabriketatik, %14 ostalaritzatik eta soilik %5 saltoki handietatik. Beraz, horren zabaldu dagoen ustearen aurka, geu gara elikagaiak arinkeriaz erosi eta alferrik galtzen uzten ditugunak, eta ez multinazionalak. Europar Batasunak (EB) neurriak hartuko ditu 2025erako kopuru hori erdira murrizteko. Azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, soberakinik ez sortzea baizik. Elikagaien gehiegizko ekoizpenak eta ustiapen erraldoiek ingurumena izugarri kaltetzen dute.

GARCIA, Mikel
argia.com 2012ko otsailaren 19a. Egokitua



Mundu osoan, jendea gero eta gehiago dago urrutiko elikagai iturrien menpe. 50 urtean elikagaien nazioarteko merkataritza hirukoiztu egin da, eta nazioarte mailan garraiatutako elikagaien kopurua, laukoiztu; populazioa, soilik, bikoiztu egin da, ordea. Estatu Batuetan elikagaiek 2.500 eta 4.000km artean egiten dituzte baserritik platerera iristeko, 1980an baino %25 gehiago; Erresuma Batuan, berriz, %50 gehiago.

Distantzia luzeko elikagai sistemak aukera bikainak eskaintzen ditu, baina baditu alde txarrak ere; izan ere, tokian tokiko sukaldaritza, produktuak eta nekazaritza alde batera uzten ditu, petrolio kantitate itzelak gastatzen ditu eta ingurumenean eragiten du.

HALWEIL, Brian
www.bakeaz.org 2003. Egokitua



- Zer nabarmenduko zenuke Mikel Garciairen testuan?
- Nola jokatu beharko genuke horrenbeste janari alferrik ez galtzeko?
- Zerk eman dizu arreta Brian Halwelek dioen horretan?
- Leku desberdinetako elikagaiak mundu guztira iristea nola ikusten duzu, kontsumitzaile gisa? Zergatik?

(Enpresaburu baten ikuspegia)

LANARI EUTSI NAHI BADIO, GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DU LANGILEAK!



México	2.250
Chile	2.047
Grecia	2.032
Hungria	1.980
Polonia	1.937
Estonia	1.924
Israel	1.890
Turquía	1.887
República Eslovaca	1.793
España	1.690

LANGILEAK URTEAN EGINDAKO LAN ORDUAK



- Beste herrialde batzuetan baino **lanordu gutxiago** egin eta **gehiago kobratzen** da hemen; enpresei eutsi nahi badiegu, **lan bera merkeago egiteko prest** egon behar du langileak.
- Langile eta sindikatuek beti eskubidez hitz egiten dute, baina **betebeharrak ere badituzte**, eta laneko orduetan **lan egin beharko dute**, kafe atsedean luzeak, ate aurreko zigarroak eta lanarekin zerikusirik ez duten zereginak alde batera utzita.
- Hemengo lan egutegietan **Europako beste herrialde batzuetan baino jaiegun eta zubi** gehiago dago. Gainera, lanera **opor osteko sindromearekin** bueltatzen da langilea eta egun batzuk behar ditu bere onera itzuli eta lanean ondo hasteko.
- Langileek **elkarlana, inplikazioa eta konpromisoa** erakutsi behar dituzte lanari eusteko eta **irtenbideak topatzeko**.

(Langilearen ikuspegia)

LANA BAI, BAINA ESKUBIDEAK GALDU GABE!



- **Gobernua eta patronala elkarren eskutik** ibiltzen dira, eta enpresariengandik datorren edozein lege-proposamen edo erregulazio tentuz hartu behar da, **beraien interesak eta gizartearenak ez baitira bat etortzen.**
- Urteetan hitzarmen kolektiboz lortutako **eskubideak ezerezean** utzi nahi dituzte krisi aitzakiarekin, eta langilea **edonoiz kaleratu** dezakete eta ia kosturik gabe.
- Lana sortzen denean, enpresek **langileak hartu beharrean, azpikontratatu** egiten dute lan hori edo langilea ETT bidez kontratatzen dute.
- Enpresa askok merkatua zabaltzeko aitzakiaz, garapen bidean dauden herrialdeetan zabaltzen dituzte fabrikak, eta **lana eraman egin dute**, han irabaziak handitzeko.

3. HE

(aztertzailea)

MINTZAMENA

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

(A fitxa)

(Enpresaburu baten ikuspegia)

LANARI EUTSI NAHI BADIO, GEHIAGO INPLIKATU BEHAR DU LANGILEAK!



México	2.250
Chile	2.347
Grezia	2.852
Hungria	1.360
Polonia	1.337
Estonia	1.924
Israel	1.850
Turquia	1.867
República Eslovaca	1.753
España	1.890



- Beste herrialde batzuetan baino **lanordu gutxiago** egin eta **gehiago kobratzen** da hemen; enpresei eutsi nahi badiegu, **lan bera merkeago egiteko prest** egon behar du langileak.
- Langile eta sindikatuak beti eskubidez hitz egiten dute, baina **betebeharrak ere badituzte**, eta laneko orduetan **lan egin beharko dute**, kafe atseden luzeak, ate aurreko zigarroak eta lanarekin zerikusirik ez duten zereginak alde batera utzita.
- Hemengo lan egutegietan **Europako beste herrialde batzuetan baino jaiegun eta zubi** gehiago dago. Gainera, lanera **opor osteko sindromearekin** bueltatzen da langilea eta egun batzuk behar ditu bere onera itzuli eta lanean ondo hasteko.
- Langileek **elkarlana, inplikazioa eta konpromisoa** erakutsi behar dituzte lanari eusteko eta **irtenbideak topatzeko**.

(B fitxa)

(Langilearen ikuspegia)

LANA BAI, BAINA ESKUBIDEAK GALDU GABE!



- **Gobernua eta patronala elkarren eskutik** ibiltzen dira, eta enpresariengandik datorren edozein lege-proposamen edo erregulazio tentuz hartu behar da, **beraien interesak eta gizartearenak ez baitira bat etortzen**.
- Urteetan hitzarmen kolektiboz lortutako **eskubideak ezerezean** utzi nahi dituzte krisi aitzakiarekin, eta langilea **edonoiz kaleratu** dezakete eta ia kosturik gabe.
- Lana sortzen denean, enpresek **langileak hartu beharrean, azpikontratatu** egiten dute lan hori edo langilea ETT bidez kontratatzen dute.
- Enpresa askok merkatua zabaltzeko aitzakiaz, garapen bidean dauden herrialdeetan zabaldu dituzte fabrikak, eta **lana eraman egin dute**, han irabaziak handitzeko.

